

Hizkuntzak iragankorra izan behar du, besteekiko komunikaziorako balioko badu.

Lourdes Oñederra, *Fonetika eta fonologia
hitzez hitz*, 2004



'-ekiko' atzizki konposatua

Sarri erabiltzen da atzizki hori gaur egun. Hona beste adibide batzuk:

- *Europar merkatariekiko harreman guztiak eten zituen Japoniak bi mendez.*
- *Orain, bizidun batekiko harremanen ehuntzea zein zaila zaidan ohartzen naiz.*



'-ekiko' atzizki konposatua

besteekiko komunikazioa

bizidun batekiko harremanen ehuntzea

Hau da sintagma horien egitura:

[NOREKIN/ZEREKIN] + [-KO] + izen multzoa



'-ekiko' atzizki konposatua: zenbait erabilera

Ikus dezagun, lehenik, zer
erakusten digun literatura-
tradizioak.



Izenlagun gisa erabili izan da

1. Bi norabideko erlazioa adierazteko.

- *Elkarrekiko adiskidetasuna.*
- *Elkarrekiko maitemina.*
- *Etsaiarekiko auziak.*
- *Entzulearekiko batasuna.*
- *Hizkuntzarekiko lotura.*
- *Kartzelarekiko lokarria.*



2. Norabide bakarreko erlazioa adierazteko.

- ‘Norbaitekikoak egin’ egitura:
 - » *Zurekikoak egin (betebeharrak...)*.
 - » *Legearekikoak kitatu (zorrak...)*.



Baita adizlagun gisa ere (Hegoaldean)

1. **Pertsona-izenordainekin, 'berekiko esan / pentsatu /...'** moduko esapideetan bereziki:

- *...eta berekiko esan zuen:...*
- *...esan nuen nirekiko.*

2. **'-ekiko (izan) duen'** esapidean:

- *Gurekiko izan duen portaera.*
- *Lagunekiko dudan zorra.*

Esapide horren kidekoa da '-en aldera(t)' itzulia
(*Ipar.*):

- *Zordun naiz zure aldera.*
- *Bihozbera da seme-alaben aldera.*



Eta izenondoan osagarri (*Heg.*)

- *Zurekiko zintzo izango naiz.*
- *Legearekiko errugabe nauzu.*
- *Mutu jarraitzen zuten bata bestearekiko.*



Edozein modutan, *'-ekiko'* okerrak eta zalantzazkoak zabaldu dira azken aldian. Esate baterako:

Dolarra jaitsi egin da yenarekiko eta euroarekiko.

Halakoak jorratuko ditugu datorren astean. Bitartean, pentsatu nola adieraziko zenukeen zuk hori.

